

«Gure hezkuntza sistema propioari ausardiaz benetako hauspoa emateko garaia da»

Hezkuntza ez da eguneko agenda politikoan lehen mailan dagoen gaietako bat, baina, aldiz, LOMCE legearekin gertatutakoa da inposizio eta subiranotasun ezaren adibide argienetako bat. Kasu horretan, gizarteak aurrea hartu die erakundeei, eta, salaketa hutsean geratzeko, eraikitzen ere hasia da. «LOMCE ez aplikatzeko konpromisoa dugu eta gure hezkuntza eredu propioaren aldeko urratsak ematen jarraituko dugu», argitu du Leire Barrera Gure Hezkuntza Plataformen Topagunearen izenean. Bertan, familiak, irakasleak, ikasleak eta hezkuntza langileak ari dira eskuz esku lanean.

Ikasturte honetan ez da errebalidarik egongo, Cristina Uriarte Lakuako Hezkuntza sailburuak adierazi duenez. Zein da egoera? Gure Hezkuntza Plataformen Topagunearen lana bukatu al da?

Argi dagoena da eztabaida ireki egin dela, baita gizarteratu ere. Errebalida eta oro har ebaluazio sistema osoa ezbaian dagoela argi dago. Kezkatzen gaituen gaia da eta lantzen jarraituko dugu. Baina argi dugu hezkuntza sistemaren beste atal bat besterik ez dela, bere garrantziarekin, jakina.

Bestelako hezkuntza eredu bat posible dela badakigu, hemengo errealitatetik abiatuta, merkatuen interesetatik at, umea erdigunean kokatuz, ikasketa esanguratsua ahalbidetuz. Euskalduntzen duen hezkuntza sistema behar dugu, inklusiboa, hezkidetzaila, eta argi dago bide horretan gure herriari begira jarri behar dugula. Guk baino hobeto inork ez duelako ezagutzen zeintzuk diren beharrak, indarguneak, ahulguneak. Horregatik gure hezkuntza sistema propioari ausardiaz benetako

LEIRE BARRERA GURE HEZKUNTZA PLATAFORMEN TOPAGUNEA

Hezkuntza komunitateak argi dauka «hemengo nahiei eta beharrei erantzuten dien eredu propioa» eraikitzeke garaia dela. Ebaluazioa sistema bera ere aztergai dutela aurreratu digu Barrerak eta hausnarketan parte hartzeko deia egin du.

Nerea GOTI

hauspoa emateko garaia dela uste dugu.

Kritika zorrotzak egin zaizkio Heziberriri, Hezkuntza Sailak ebaluazio sistema mantendu eta aplikatzen jarraitzeko baliatu baitu. Hau da, Lehen Hezkuntzari eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkien dekretuak martxan daude jada, eta, faltan ziren Batxilergoko ebaluazioen dekretuak, berriz, irailaren 23an publikatu ziren. Bertan ikusten da zein den asmoa, ebaluazioarekin lotutako ikasturte honetako panorama argitzen baita. Lehen Hezkuntzan, ondorio akademikorik gabeko probak izango dira 3. mailan; hala, iaz bezala, barne ebaluazioa egingo da. Ostean, 6. mailan, etapako ebaluazioa egingo da, oraindik ez badakigu ere soilik “lagin” gisa balioko duen edo ez. Gainera, 4. mailakoei ebaluazio diagnostikoa egitea ere badagokie aurrean. Bigarren Hezkuntzan, berriz, 2. mailakoei ebaluazio proba egitea dagokie, eta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan, “lagin bat” hartuko dute. Hori horrela, ebaluazioa aukeratutako institutu eta zentroetan soilik egingo da. Ebaluazio horrek ez du zuzeneko eragin akademikorik izango; titulua berdin emango dute azterketa gainditu ala ez. Bukatzeko, Batxilergoan ebaluazioa egingo da eta honek ere ez du eragin akademikorik izango; hori bai, selektibitatearen lekua hartuko du. Beraz, argi dugu Plataformen Topaguneak lan handia duela oraindik; bidea luzea izango dela uste dugu. Esan bezala, inposizioen kontra gaude: LOMCE ez aplikatzeko konpromisoa dugu, eta gure hezkuntza eredu propioaren aldeko urratsak ematen jarraitzekoa.

LOMCE indarra galtzen ari den sentsazioa zabaldu da, Wertek diseinatutakoa «astakeria» leundu egin dela. Ba al du, baina, euskal hezkuntza komunitateak lasaiago egoteko motiborik?

Plataformen Topagunearen ki-deok oso kezkatuta gaude. Jakin badakigulako Heziberriren dekretuekin LOMCE legearen ezar-

pena martxan dagoela. Gainera, aldaketarik ez da sumatzen. Are gehiago, ebaluazioaren ezarpenak aurrera egin du; esaterako, Lehen Hezkuntzako etaparen bukaeran ikasle bakoitzaren txostena bete eta irakasleen ebaluazioa egin behar da. EAEn behintzat ez dugu ikusten lasaiago egoteko motiborik eta aurrerantzean ere ikusteke dago zer gerta daitekeen.

Hezkuntza komunitateak, bestelako hezkuntza eragileekin batera, lortu ditu garaipen txikiak eta txikitasun horretan duten balioagatik handiak direla esango nuke. Hezkuntza legeen erreforma astakeria hutsa dela agerikoa da, baina, errealitatean, ikastetxeetan eta kalean egondako mobilizazioa eta presioa izan dira garaipen horien gako nagusietakoak. Hala ere, hezkuntza komunitatea kontran agertu arren, badira gure ikastetxeetan LOMCEtik eratorritako neurriak, Heziberrik jaso baititu. Zalaparta handiena sortu duena baliteke ebaluazioena izatea, baina bestelako neurriek ere kezka handia sortzen digute.

Werten legea hain basatia izanik, denok aurka agertu gara: gehiengo politikoa, hezkuntza eragileak, hezkuntza komunitatea, herritarrok... Argi eta ozen adierazi dugu ez dugula LOMCE nahi. Legea indargabetzeko ekimen ezberdinak egin ditugu: “LOMCErik gabeko herria”, sinadura bilketa, planto dinamika... Badaude, beraz, arrazoi nahikoa pentsatzeko eragina izan dugula. Ahaztu gabe beste faktore bat: PPK gehiengo osoa galdu izana. Gainera, Espainiako Gobernuak eta erkidegoetako ordezkariak bilera bat egin zuten azaroaren 28an, eta, errebalida baztertu eta selektibitateari eustea erabakitzeaz gain, LOMCE legearen hemendik aurrerako aginduak *impasse* egoeran utzi eta “itun nazionala” egingo dela adierazi zuten. Horrek guztiak lasaitu egin du hezkuntza komunitatea, jakina.

Errebalidekin gaineko kezkarren itzalean, LOMCE legearen beste atal batzuk ezartzen joan dira. Zein da egoera?


Hamaika neurri sartu dizkigute ezkutuan. Lehen Hezkuntzan Erlijioa eta Balio Zibiko eta Sozialak ikasgaia ezarri da adibidez; hala, erlijioa derrigorrez eskaini eta aktetan kalifikatu egin behar da gainerako ikasgaien baldintza eta ondorio berberekin. Horrez gain, Gizarte Zientziak eta Natur Zientziak ikasgaietan banatu da Ingurunea arloa, Lehen Hezkuntzak zituen hiru zikloak desagertu egin dira, Bigarren Hezkuntzan ordutegia luzatu egin da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako ikasleek bi matematika dituzte aukeran –hezkuntza aplikatura bideratuta bat eta hezkuntza akademikora bestea–, dokumentu ofizialearako ereduak aplikazio informatikoak garatu dira –azken ebaluazioaren aktak, datutegia, ordutegia...–, testuliburuak egokitu dira irakasgai berriei... Horrenbestez, ezkutuan, inolako eztabaidarik gabe, LOMCEtik datozen neurriak gure ikastetxeetan txertatuz joan dira.

Azken ikasturteetan eskola komunitatea nahasmen handi batean murgildu da: inork ez zekien esaten errebalidak egingo ziren ala ez, nolakoak izango ziren... LOMCEren aurka azaldu baina antzekotasun handiak dituen Heziberri dekretua ezarri du Lakuak berak ere. Zer-nolako argazkia egiten du Plataformen Topaguneak Hezkuntza Sailaren jokabidearen inguruan?

Hezkuntza Plataformen Topaguneko asanbladetan sentsazio arraroa zegoen etengabe. Nora eza izan da nagusi, irakasleek, zuzendariak... ez zekiten ikasturte hasieran kurtsoa nola amaituko zen, are gutxiago gurasoek... Askotan albistegietan agertutako adierazpenak kontraesankorrak izan dira eta hezkuntza komunitatearen aldetik deskonfiantza areagotuz joan da. Heziberri LOMCEri aurre egiteko tresna gisa aurkeztu zen, baina, aldiz, Heziberriren bidez LOMCEren neurri asko ezartzen ari dira.

Gure ustez, Heziberri Euskal Herrirako eta Euskal Herrian ga-

«Heziberri LOMCEri aurre egiteko tresna gisa aurkeztu zen, baina Heziberriren bidez LOMCEren neurri asko ezartzen ari dira. Egun esan dezakegu Heziberri dela LOMCEren ezarpenaren bermea»



Argazkiak: Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

ratzeko egitasmoa izan beharko litzateke. Tamalez, Hezkuntza Sailak duen jokabidea etengabe Madrili begira izatea da gure ustez. Madrilen eman daitekeen balizko aldaketan jarri du itxaropena. Alde batetik, ekimen eta ausardia falta sumatzen da. LOMCE lege organiko bat dela aitzakia gisa hartuta, horren inposizioari aurre egin beharrean, Heziberriren dekretuetan integratzen joan da. Egun esan dezakegu Heziberri dela LOMCEren ezarpenaren bermea.

Horrek esan nahi du Madrilen inoiz LOMCE bertan behera uztea lortuko balute, Heziberri indarrean jarraituko lukeela EAEko zentroetan?

Madrilen LOMCE bertan behera uztea lortuko balute, LOMCEtik datozen eta Heziberri beregain hartzen dituen hainbat neurrik, dekretu bidez onartutakoak, in-

darrean jarraituko lukete moldatu ezean. Posiblea da egingo den “itun nazionalak” LOMCE beste lege organiko baten bitartez geldiaraztea, baina ez gaitzen engaina: lege berriak ere Madril izango du sabai eta Madrilen ezartzen diren lege organikoek ez diote Euskal Herriko beharrei erantzuten. Beren menpe jarraituko dugu erabateko eskumenik izan ezean. EAEko zentroetan zer gerta daitekeen ikusteke dago oraindik, baina hemen Heziberri egitasmoa dugu dagoeneko.

Euskal izena izanik eta EAEko Hezkuntza Sailak berak egin izanik, hezkuntza komunitatearen zati batek ez du agian Heziberri Lomce bezain arrotz ikusten. Zein hezkuntza eredu marrazten du Heziberri?

Hala dirudi, bai. Horregatik da hain garrantzitsua ondo defini-

tzea zer hezkuntza mota nahi dugun. Gure ustez, hezkuntza herritar ororen eskubide indibidual zein kolektiboa da. Gure garapen integrala bultzatzen duena, pertsona aske, solidario, euskaldun, autonomo, sortzaile eta kritikoak sortzeko gaitasuna duena. Eskola euskalduna nahi dugu. Euskal Herriaren garapen kolektiboaren zerbitzura egongo den tresna bat da hezkuntza. Hor dago gakoa. Une honetan pentsa dezakegu Heziberri, LOMCE edo beste herrialde batzuetako hezkuntza ereduaren artean ez dagoela ezberdintasunik. Baina Heziberri ez dago gure herriaren behar eta nahiei begira diseinatuta, eta hori da gure kezka nagusia: zer hezkuntza nahi dugu? Interes ekonomiko, enpresa eta merkatuen interesei begira dagoena? Ikasleen bazterketa bultzatzen duena? Hezkuntza diskriminatzaile, elitista, merkantilista eta kompetitiboa nahi dugu? Guk argi dugu bestelako hezkuntza eredu bat dela hemen behar eta nahi duguna.

Uriarte sailburuak gogor jo du zenbaitetan hezkuntza eragileekin kontra. Nola ikusten du zue Lakuako Gobernuak eragileekin izan duen jarrera?

Hezkuntza eragile ezberdinak izugarri ahalegindu gara informazioa lortzen: irakurri, kontsultatu, hezkuntza eragileekin artean harremanak eta informazioa trukatu... Bitartean, «hemen LOMCE oharkabeen pasako da, hemen ez da aplikatuko» bezalako adierazpenak entzuten genituen. Aldiz, errealtatean familiak eta irakasleek aho batez esaten zuten ikastetxeetan neurriak ezartzen ari zirela. Penaz ikusi izan dugu egoera, baita egindako adierazpenak ere. Izan ere, hezkuntza komunitateari informazioa garai ematea “aukera” baino betebeharra dela uste dugu; gure eskubidea da. Hezkuntza eragileekin batera LOMCEren aurka ekiteko baldintzak zeuden nahi izanez gero. Baina hartutako neurriekin, hezkuntza komunitatean argi ikusi genuen ez zutela norabide horretan joateko asmorik.

**Azken ikasturteetan inoiz eza-
gutu ez den mobilizazioa di-
namika izan da hainbat ikas-
tetxetan, errebaliden aurrean
planto masiboak... Zelan balo-
ratzen duzue?**

Gure balorazioa oso positiboa da. Edozein ekimenek, mobili-
zazioak... inplizituki konpromiso
zuzena dakar. Funtsezkoa da
hezkuntzaren inguruko kezka,
inplikazioa, hezkuntza komuni-
tate osoak ekimenetan parte
hartzea... Azken batean, ekimen
baten partaide sentitzea salto
kualitatibo ikaragarria ematea
da. Familia, ikasle, irakasle, ikas-
tetxeko langile, herritarrek... el-
karlanean ekimenak aurrera
ateratzeak erakusten du era
eraikitzailean ekarpenak egite-
ko prest dagoen masa bat dago-
ela, eta hori beti positiboa da.

**Hezkuntza Sailak gutxitan
ezagutu den adostasun zabala
izan du LOMCEren aurka: fa-
miliak, irakasleak, ikasleak,
sindikatu guztiak... Gizarteak
emandako babes horrekin, zer
egin beharko luke Lakuako
Exekutiboak?**

Hezkuntza eragileak eta hez-
kuntza komunitatea prest ager-
tu gara une oro inposizioari au-
rre egiteko. Hezkuntza propio
bat izateko konpromiso eta in-
plikazio itzela dago. Beraz, Hez-
kuntza Sailak arduraz jokatu be-
harko luke, nola? Madrili eta
Europari begira egon beharrean
Euskal Herrirako eta Euskal He-
rrian garatzeko hezkuntza siste-
ma bat osatuz. Horretarako hez-
kuntza eragilean, alderdi
politikoen, hezkuntza komuni-
tatea osoaren iritziak, ekarpe-
nak... entzun eta kontutan hartu
beharko lituzke. Guztion parte
hartzearekin Euskal Herriak be-
har duen hezkuntza sistema
gauza dezakegu. Horrek suposa-
tuko luke orain arte egindako
lana kontuan hartzea, proiektu-
ak, alternatibak, badira-eta.
Heziberrik curriculumean egin-
dako egokitzapenak bertan be-
hera uztea ere eskatuko luke.

**Azaldu duzuenez, Heziberri-
ren bitartez LOMCE aplikatze-
ko berme nagusia ebaluazioa-
rena da. Horregatik, ebaluazio**



**sistema bera eztabaidara eta
hausnarketara eramán nahi
duzue aurretik.**

Ebaluazioak garrantzi handia
du edozein hezkuntza sisteman.
“Ebaluazioa” eta “kalifikazioa”
termino ezberdinak dira eta as-
kotan nahasmen handia sor-
tzen da. Ebaluazioa ezinbesteko
elementua da eskolan. Baina
ebaluazioa hobetzeko tresna gi-
sa erabili ahal da, aldaketak eta
hobekuntzak baimentzen di-
tuen tresna gisa, edo, aldiz, kon-
trol mekanismo bat izan daite-
ke, eta hori arriskutsua izan
daiteke. Ebaluazioaren erabilpe-
na bera eta ebaluazioa nondik
nora eraiki behar den eztabai-
datuko dugu. Hezkuntza siste-
ma propioak bere ebaluazio sis-

*«Hezkuntzak kolore
anitzeko proiektua
izan beharko luke.
Horrela balitz,
hauteskundeak
edonork irabazita
ere, ez litzateke lege
aldaketarik izango»*



tema propioa izan beharko du
eta horretan zentratuko gara:
zelan ulertzen dugun gure eba-
luazio sistema propioa, nola
eraiki behar den, zertarako eta
nola erabiliko den. Eztabaida
parte hartzailea izatea nahi du-
gu eta beste esperientziak kon-
tuan izango ditugu. Beraz, he-
mendik ere otsailaren 18an
parte hartzera animatzen ditu-
gu eragileak, guztion ekarpene-
kin jantzi nahi dugu proposa-
mena, eta kontzeptua edukiz
betetzen joan.

**Hezkuntza sistema propioa-
ren aldarria egin duzue hasie-
ratik. Zertan datza?**

Esan dugun bezala, gure hez-
kuntza sistema propioaz hitz

egiten dugunean Euskal Herri-
rako eta Euskal Herrian garatze-
ko hezkuntzaz hitz egiten ari
gara; gure errealtatean oinarrit-
zen den eta gure behar eta
nahiei erantzuten dien hezkun-
tzaz ari gara. Ezinbesteko osagai
batzuk irudikatzen ditugu, bes-
teak beste, errealtate guztiak
aintzat hartzea edota ikasleak
erdigunean kokatzea. Horrez
gain herritarra, hezkidetzalea,
sortzailea, parte hartzailea, eus-
kalduna... izan behar da.

**Zer-nolako indarra du aldarri-
kapen horrek gizartearen?**

Argi dagoena da oro har gaur
egungo hezkuntza sistemak ez
duela hezkuntza komunitatea
asetzen. Ondorioz, gero eta
gehiago dira aldarri hori aldarri
izatek errealtate izatera pasa-
tzea eskatzen duten platafor-
mak eta pertsonak. Adostasun-
ak bilatzeko momentua dela
pentsatzen dugu. Baldintzak
egon badaude eta gu ere prest
gaude ekarpenak norabide ho-
rretan egiteko.

**Badirudi, legealdi honetan
hezkuntza lege bat onartzeko
aukerak izango direla. Zer gi-
ro ikusten duzue?**

Auzia beste prisma batetik begi-
ratu beharko genukeela uste du-
gu: hezkuntza lege berri bat
ezin da soilik alderdi politikoen
esku utzi. Bestelako eragileek
ere funtsezko papera jokatu be-
har dute. Benetako partaidetza
bultzatu behar da, beldur barik.
Asko gara hezkuntzan ekarpe-
nak egiteko prest gaudenak eta
errealtatean zer tarte gutxi es-
kaintzen zaigun konturatzen
gara. Hezkuntzak kolore anitze-
ko proiektua izan beharko luke.
Horrela balitz, hauteskundeak
edonork irabazita ere, ez litzate-
ke lege aldaketarik egongo;
ikaslea erdigunean kokatu eta
herri gisa garatutako hezkuntza
proiektua izan beharko litzate-
ke zutuin. Argi dago euskal hez-
kuntzak beste lege bat behar
duela, euskal curriculum eta
euskal kultura garatuko ditue-
na, ikasle euskaldun eleaniztu-
nak heziko dituen eta euskal
eskola publiko berria bultzatu-
ko duena.